



**EBAZPENA, 2021EKO APIRILAREN 21EKOA, HEZKUNTZA SAILEKO LANGILEAK KUDEATZEKO ZUZENDARIARENA. HORREN BIDEZ, 2021/2022 IKASTURTERAKO ZERBITZU-EGINKIZUNAK ETA KLASE-ORDUEN 1/3KO MURRIZKETAK BAIMENTZEA OSASUN ARRAZOIAK DIRELA ETA EBAZTEN DA, HEZKUNTZA SAILEKO LANGILEAK KUDEATZEKO ZUZENDARIAREN 2021EKO OTSAILAREN 4KO EBAZPENAREN BIDEZ ARAUTUTAKOA.**

185/2010 Dekretua, uztailaren 6koa, Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko irakasle funtzionarioen lan-baldintzak arautzen dituen akordioa onartzeko denak, bere 12. Artikuluan ondorengoa dio:

*"Irakaskuntzako arrazoia edo norbere osasun-arazo larriak direla-eta, karrerako funtzionarioek berez dagokiena ez den beste ikastetxe batean lan egin ahal izango dute.*

*Salbuespen gisa, zerbitzu-eginkizunak eman ahal izango dira odol-ahaidetasuneko lehen mailako senideren batek gaixotasun larria baldin badu, betiere elkarrekin bizi badira eta interesdunaren arreta pertsonala beharrezkoa dela egiaztatzen bada.*

*Era berean, albuespen gisa, eta gehienez ere bi urtez, zerbitzu-eginkizunak eman ahal izango zaizkie gaixotasun larria duten pertsonari, betiere hori bidezko mediku-txostenaren bidez egiaztatzen bada. Eginkizun horiek izan daitezke zuzenean eskolak ez emateko.*

*Zerbitzu-eginkizunak ikasturte osorako izango dira eta interesdunak ezingo die horiei uko egin. Urtero, ikasturtean ikasturteko zerbitzu-eginkizunen deialdiak egingo dira Langileak Kudeatzeko zuzendariaren ebazpen bidez"*

71/2021 Dekretua, otsailaren 23koa, Hezkuntza Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duena, bere 10 k) artikuluan, Langileak Kudeatzeko Zuzendariaren eskumena zerbitzu-eginkizunak ematea dela ezartzen da.

2021eko otsailaren 4ko ebazpenaren bidez, osasun arrazoia larriengatik eta senideen gaixotasun larriengatik egindako deialdia argitaratu zen.

2021eko otsailaren 4ko ebazpenaren 7. atalean ezartzen denaren arabera, deialdi honetan exijitzen diren baldintzak betetzen dituzten eta garaiz eta forman aurkeztu diren eskabideak balorazio batzordeak baloratuko ditu.

Esandako 2021eko otsailaren 4ko ebazpenaren zortzigarren atalak esandakoari jarraiki, Langileak Kudeatzeko zuzendariak deialdia ebatziko du dagokion Balorazio-batzordeak egindako ebazpen-proposamena oinarri hartuta eta interesdunek egindako alegazioak aztertu ondoren.

Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legeak, bere 54. artikuluan arautu du zerbitzu-eginkizuna, eta lanpostuak betetzeko aparteko era bat bezala taxutu.

Horiek horrela, behin eskaerak aztertuta eta balorazio batzordeak egindako proposamena ikusita, otsailaren 23ko 71/2021 Dekretuak ezartzen duen eskumenaz baliatuz, honako hau

#### EBATZI DUT:

**Lehena.-** Hezkuntza Saileko langileak kudeatzeko zuzendariaren ebazpena, 2021/2022 ikasturterako zerbitzu-eginkizunak eta klase-orduaren 1/3ko murrizketak baimentzea behin betiko ebazten duena argitaratzea. Deialdia 2021eko otsailaren 4ko ebazpenaren bitartez egin zen.

**Bigarrena** Ebazpen honen I. Eranskina argitaratzea. Eranskin horretan 2021/2022 ikasturterako baimendutako zerbitzu-eginkizunak eta klase-orduaren 1/3ko murrizketak ageri dira.

**Hirugarrena.** Ebazpen honen II. Eranskin argitaratzea. Eranskin horretan ez onartutako eskabideak eta ukatzeko arrazoia ageri dira.

**Laugarrena-** Emandako zerbitzu-eginkizunak, oro har, hutsik dauden lanpostuak betetzeko ematen dira, eta interesdunek ikasturte hasierako esleipenera joan behar dute, dagokien txandan, lanpostua aukeratzera, hurrengo kasu honetan izan ezik: Osasun-arrazoi larriengatik edo, albuespen gisa, behar adina egiaztatutako beste arrazoi batzuegatik zuzenean eskolak ez emateko zerbitzu-eginkizunak baimentzea.

Hori guztia, deialdiaren zortzigarren atalean ezarritakoa eragotzi gabe.

**Bostgarrena.** Argitarapena <http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.eus> webgunean egingo da.

**ERREKURTSOAK**

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak, bere 121. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoaren arabera, administrazio bidea amaitzen ez duen ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtoa aurkeztu ahal izango zaio Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordeari, hilabeteko epean, ebazpena Hezkuntza Sailaren webgunean argitaratu eta biharamunetik kontatzen hasita.

Vitoria-Gasteizen, 2021eko apirilaren 21ean.

Blanca María Guerrero Ocejo  
**LANGILEAK KUDEATZEKO ZUZENDARIA**



HEZKUNTZA SAILA  
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN